Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

BIDEOA IKUSI

DIRULAGUNTZEN ZURIKETA ORRIA BETETZEN LAGUNTZEKO TUTORIALA

A EPIGRAFEA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako zerbitzuak, urtero argitaratzen dituen UDALEI zuzendutako **dirulaguntza lerroetarako, zuriketa** orria betetzeko argibideak azalduko zaizkizu gida honen bidez. Zehazki **A epigrafera** aurkeztutako proiektuak zuritzeko.

Gipuzkoako lurraldean gertatzen ari diren praktiketan oinarrituta, partaidetzaren imaginario eta marko konpartitua sortzeko ildoa garatzen ari da Aldundian.

Zuriketarako aldagai sistema berriak honako aukerak emango dizkigu:

1. **Dirulaguntzaren zuriketa bideratzea**
2. **Gipuzkoako partaidetza esperientzien mapa elikatzea**
3. **Bertan argitaratzen diren sistematizazio fitxen bitartez prozesuen argazkia jasotzea**
4. **Aldagai zehatzen araberako bilaketak egitea**

1.



2.



3.

4.



AURKIBIDEA

Sarrera 04

Formularioa 06

1. Prozesuaren informazio orokorra 07
2. Prozesuaren datu orokorrak 08
3. Parte hartzea edota sarbidea bermatzeko hartutako neurriak 11
4. Parte hartzaileen profila eta datuak 13
5. Prozesuaren bideratzaileen profila 14
6. Prozesuaren ebaluazioa 15
7. Prozesuaren barne balorazioa 16

Lehenik eta behin, mezu bidez jasotako **sarbide-kodea** erabiliz zure espedientera sartu beharko duzu. Zure eskaeran sartu eta **“Ordainketa partziala edo osoa”** sakatu.

A epigrafea aukeratu eta justifikazioari dagokion zenbatekoa eta deskribapen laburra idatzi. Ondoren dokumentazio erantsi eta osatzeko atala izango duzu.

Aurkeztu beharreko informazioaren artean hizpide* dugun formularioa aurkituko duzu.

**Laguntza moduan PDF formatuan dagoen zirriborro formularioa deskargatu dezakezu, baina zuriketa ontzat emateko beharrezkoa da formularioa plataforman bertan betetzea.*






https://egoitzadesa.sare.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DMSEskaerakWEB/abonos/detalleAbono?dpto=19&proced=GAPC0104&codint=2025-000035-04-02
IFZ: P2007400A
Probintzia: GIPUZKOA
Herria: GURHERRIA
Helbidea: Gipuzkoa plaza
Ataria:
Solairua:
Posta kod.: 20018
1 telefonoa: 943112478
2 telefonoa:
Faxa:
Dokumentazio aldagarria hautatzeko irizpideak
* Aukeratu ordainketa mota eta Epigrafea (dagokionean): 2. ordainketa - Epigrafe A
Justifikazioa
* Justifikazio zenbatekoa: 5.000,00 €
* Justifikazio deskribapena: Azalpen


LAGUNTZAKBEKAKDIRULAGUNTZAK
2025/10/31 09:19:43 | Online laguntza eu | es
P2007400A
Internet bidezko eskaera
Herritarren partaidetza sustatzeko lurraldeko udalei eta tokiko erakunde txikiei dirulaguntzak
Herritarren Partaidetza
Laguntzari buruzko zalantzak Enrike Bergua 934999999
Eskatzailea: Izena Abizena Abizena
Espedientea: 2025-000035-04-02-B
IFZ: P2007400A
Sortze data: 2025-10-31
1 Nork egiten du eskaera
2 Zure eskaera osatzeko dokumentazioa
3 Aztertzea eta Aldundira bidaltzea
Eskaerara itzuli
2. 1. Agiri orokorrak
Agiri mota
Ekintzak
2. 1. 1 Derrigorrezko agiriak (beharrezko agiriak)
Agiriak falta dira
Gehitu
2. 1. 3 Bestelako agiriak edo agiri elkarreragileak (eskaera osatzen dutenak edo Foru Aldundiak egiaztatzearen aurka dagoelako eskatzaileak aurkeztu behar dituenak)
Ez dago agiririk
Gehitu


LAGUNTZAKBEKAKDIRULAGUNTZAK
2025/10/31 09:19:45 | Online laguntza eu | es
P2007400A
Internet bidezko eskaera
Herritarren partaidetza sustatzeko lurraldeko udalei eta tokiko erakunde txikiei dirulaguntzak
Herritarren Partaidetza
Laguntzari buruzko zalantzak Enrike Bergua 934999999
Eskatzailea: Izena Abizena Abizena
Espedientea: 2025-000035-04-02-B
IFZ: P2007400A
Sortze data: 2025-10-31
1 Nork egiten du eskaera
2 Zure eskaera osatzeko dokumentazioa
3 Aztertzea eta Aldundira bidaltzea
Eskaerara itzuli
Agiri bakoitzaren gehienezko tamaina 50 MB-koa da
Konprimatutako agiriak ez dira onartzen
2. 1. 1. Agiri orokorrak - Derrigorrezkoak
1. Zuriketarako eranskina - A epigrafea
Zuriketa bideratzeko eta Datu-basea elikatzeko datuak jasoko dira formulario honetan
Formulario elektronikoa bete
Eredua jaitsi

7 ataleko formulario bat bete beharko duzu. Azken atala izan ezik, beste atal guztietako informazioa argitaratuko da, beraz, garrantzitsua da arretaz betetzea.

Hobeto ulertzeko, asmatutako Udal fiktizio batek sustatutako partaidetza prozesu baten adibidea erabiliko dugu: **GURHERRIA**





Atal honetan, (1.1.) **erakundea** zehaztu eta **prozesuaren arduradunaren datuak** (1.2.) bete beharko dituzu. Prozesua publiko egiten denean harremanetarako erreferentzia izango da informazio hori.

BIDEOA IKUSI

02 PROZESUAREN DATU OROKORRAK

Prozesuaren inguruko datu orokorrak bilduko ditugu hemen: **prozesuaren izena** eta **esteka** (2.1.), **prozesuarekin lotura duten gaiak** (2.2.), **partaidetza tresna nagusia** (2.3.), **prozesuak hartu duen dimentsio geografikoa** (2.4.)**, zein herritar multzori zuzendua izan den** (2.5.),...





Gure adibidean udalak aurrekontu parte-hartzaile prozesua garatu du. Berdintasun eta gizarte politikekin lotutako proposamenei lehentasuna eman diotenez horiek dira formularioan hautatutakoak, **tresnari** dagokionez *"partaidetza aurrekontuak"* aukeratuko genuke gure kasuan. Herri mailan garatu denez dimentsio geografikoa hori izango da. Eta **prozesuan parte hartu dutenak** *herritarrak orokorrean* dira, baina ahalegin berezia egin da *gazteek*, *haurrek* eta, zerrendan agertzen ez diren *pertsona migratuak.*

Prozesuaren **deskribapenean** (2.6.) zer egin den, prozesuaren faseak labur azalduz, eta zer den lortu dena idatzi beharko dugu. Prozesua bera ahalik eta hoberen ulertu dadin.

Abian jarritako **prozesuaren helburuak** (2.7.) idatzi behar dira hemen. Eskaera egin zenutenean aurreikusitako berdinak izan daitezke bidean aldaketarik egon ez bada.

Idatziz bete beharreko atal bakarrak dira eta publiko egingo diren fitxei edukia emateko ezinbestekoak.

Prozesuaren epealdia (2.8.) erreala zehaztu; Posible da aurreikusitakotik aldaketak egon izana.

Prozesuaren gastuak (2.9.) jasotako dirulaguntzatik haratago, prozesuaren kostu osoari dagokio.

Gurea guztira 17.000 eurokoa izan delako aukeratu dugu tarte hori, nahiz eta jasotako dirulaguntza 10.000 eurokoa izan den gastu osoa adieraz beharko dugu hemen.



Formulario osoan zehar maiz izango duzu aukeraketatik haratako behar dena zehazteko tokia, erabili ezazu, informazioa aberasteko garrantzitsua izan daiteke.

Ondoren **prozesuaren eragin eremua** (2.10.) zehaztu, hau da, prozesuaren emaitzak zenbateraino eragingo duten udaleko politika publikoetan.

Gure adibideko partaideak informatuak izango dira, proposamenak egiteko aukera izango dute eta baita erabakimena ere.



Egon diren **ekintza motak eta kopurua** (2.11.) adierazi beharko dira.

Gure kasuan ausaz hautatuko herritarrekin 3 lan-talde osatu dira eta elkarteekin eta herritarrekin batzar bat antolatu da eta bi galdetegi betetzeko aukera zabaldu zaie herritarrei.



Ondoren proiektuaren lidergoa eramateko edota prozesuaren jarraipena egiteko **sortu diren egiturak** (2.12.) adierazi beharko ditugu. Eta baita **egindako bilera edota saioak zeren arabera banatu** (2.13.) diren.

Egitura iraunkorrak ere sortu ditugunez, jarraipenerako sortutako egituretan berme batzordea aukeratuko dugu formularioan. Gure prozesueran antolaketa auzoen araberakoa izan denez, horrela adieraziko dugu hemen.





BIDEOA IKUSI

03 PARTE HARTZEA EDOTA SARBIDEA BERMATZEKO HARTUTAKO NEURRIAK

Hirugarren atal honetan, norbanakoen partaidetza bermatzeko **hartutako neurriak** (3.1.) aztertuko dira: genero berdintasuna bermatzeko, parte hartzeko oztopoak gainditzeko hartutakoak, hizkuntza ezberdinak kudeatzekoak eta euskararen erabilera bermatzeko hartutakoak etab. Atal hau bereziki garrantzitsua da. Izan ere, partaidetza prozesuetan parte-hartzea bermatzeko neurri zehatzak hartzen ez badira, nekez lortuko da guztien partaidetza, eta orokorrean, kolektibo zaurgarrienak izango dira kaltetuenak.

Genero berdintasunari dagokionez, emakume eta gizonen arteko oreka mantentzeko zer egin da? (3.1.)

Gogoratu dirulaguntza eskaera egin zenutenean honen inguruan zehaztapenak egiteko atala zegoela, horiek izan beharko lirateke gutxieneakoak. Hor dituzuen neurriak, etorkizuneko prozesuak hobetzeko erabili ditzakezue eta azpian duzuen **gida** ere baliagarri izango zaizue helburu horretarako.



Oraingoan kontuan izan ez badituzue, datozenetan egiteko aukera izango duzue!



Gure adibidean Herriko talde feministari parte-hartzeko gonbite zuzena egin diogu, komunikazioa sexista ekiditeko protokoloa dugu udalean eta prozesuak berak berdintasuna sustatzen duten proposamenak lehenetsi dira aukeraketan.

Herritarrentzat **parte-hartzeko oztopo** (3.2.) izan daitezkenak sahiesteko hartu diren neurriak ere zerrendatu beharko ditugu.

Izan ere, horrelako neurririk hartu ezean, partaidetza guztientzat irisgarri ez izatea gerta daiteke.

3.2. Herritarrek berdintasun baldintzatan parte hartzeko oztopoak identifikatu eta horiek leuntzeko bestelako neurriak hartu dira: *

- ○ Ez
- ◉ Bai. Honakoa(k):
  - ☑ Metodologia: Egokitzapen metodologikoak egin dira, modu eta forma ezberdinetan parte hartzeko aukera izan dadin.
  - ☐ Prestakuntza: Prozesuak lantzen duen arazo nagusiari buruzko prestakuntza aurreikusi da.
  - ☑ Erraztasuna: Gai teknikoak modu errazean azaltzeko baliabideak jarri dira.
  - ☑ Fisikoki irisgarria: Mugikortasun arazoak dituztenak kontuan hartu eta gune edo saioetara iristeko neurriak hartu dira.
  - ☐ Kognitiboki irisgarria: Berdintasunean parte hartzeko giza baliabide edota teknikoak jarri dira.
  - ☐ Teknikoki irisgarria: Arrakala teknologikoak gainditzeko neurriak hartu dira.
  - ☐ Kontziliazioa: Zaintza zerbitzua jarri da haurrak zaintzeko.
  - ☐ Kontziliazioa: Zaintza zerbitzua jarri da mendekotasun egoeran daudenei zuzenduta.
  - ☐ Kontziliazioa: Ordutegi ezberdinak eskaini dira.
  - ☐ Hizkuntzara sarbidea: Hizkuntzaren ezagutza falta arintzeko baliabideak jarri dira.
  - ☐ Herritar multzo batek parte hartzeko neurri zehatzak hartu dira. Zein?
  - ☐ Besterik?

Gure saioetan egokitzapen metodologikoak egin dira bakoitzak bere mailan parte hartu zezan, teknikoagoak ziren gaien azalpena erraztu dugu eta irisgarritasun fisikoa ere bermatu dugu.

Prozesuaren **komunikazioaren hizkuntza** (3.3.) zein izan den zehaztu ondoren, **hizkuntzaren inguruko neurriak** (3.4.) adierazi beharko ditugu. Alde batetik, eukararen erabilera bermatzeko hartutako neurriak zerrendatu beharko dira (dirulaguntza eskaeran ere bazegoen honi buruzko atala).

Bestetik, herrian dagoen hizkuntza aniztasunari egoki erantzuteko eta parte-hartzeko **oztopo izan ez dadin hartutako neurriak** (3.5.) jasoko ditugu. Eta azkenik, parte hartzeagatik partaideek nolabaiteko **saririk jaso duten** (3.6.) adierazi beharko da.

3.3. Zein hizkuntzatan egin da prozesuaren komunikazioa? (Saioen zabalpena eta gonbidapenak, saioak, aktak...) *

- ○ Euskaraz dena edo ia dena
- ◉ Euskaraz eta gaztelaniaz
- ○ Gaztelaniaz dena edo ia dena
- ○ Beste. Zein?

Guk saioetan xuxurlariak, hizkuntzaren araberako azpitaldeak eta euskarri fisikoak euskeraz besteak beste.

3.4. Euskararen inguruko neurriak hartu dira? (Saioaren aurretik, saioan bertan...) *

- ○ Ez
- ◉ Bai. Honakoa(k):
  - ☑ Xuxurlariak
  - ☐ Bat bateko itzulpen zerbitzuak
  - ☑ Hizkuntzaren araberako azpitaldeak
  - ☐ Ikus-entzunezko materiala hainbat hizkuntzatan
  - ☑ Euskarri fisikoak nork bere hizkuntzan izatea
  - ☐ Dena ele bitan egin da
  - ☐ Laburpenak itzuli dira
  - ☐ Dokumentazioa bigarren hizkuntza batean banatu da
  - ☐ Adimen artifizialeko itzultzailea
  - ☐ Bestelako kanalak: Telegram
  - ☐ Besterik?

Bestetik, hizkuntza aniztasuna kudeatzeko bat bateko itzulpenak, euskarri fisikoak herrian gehien hitz egiten diren hizkuntzatan eskeini ditugu (gazteleraz, arabieraz…) eta batez ere, adimen artifiziala erabili dugu itzulpenak egiteko.

3.5. Hizkuntza aniztasunaren kudeaketari dagozkien neurriak hartu dira (euskara edo gaztelania ez direnean): *

- ○ Ez
- ◉ Bai. Honakoa(k):
  - ☐ Xuxurlariak
  - ☑ Bat bateko itzulpen zerbitzuak
  - ☐ Hizkuntzaren araberako azpitaldeak
  - ☐ Ikus-entzunezko materiala hainbat hizkuntzatan
  - ☑ Euskarri fisikoak nork bere hizkuntzan izatea
  - ☐ Laburpenak itzuli dira
  - ☐ Materialak beste hizkuntza batean banatu da
  - ☑ Adimen artifizialeko itzultzailea
  - ☐ Bestelako kanalak: Telegram
  - ☐ Besterik?

3.6. Saririk/bonifikazioarik eman al da prozesuan partehartzeagatik? *

- ○ Ez
- ◉ Bai. Honakoa(k):

Hausaz hautatutako taldeko kideei sari batekin ordaindu zaie haien konpromezua balioan jartzeko.

Deialdiaren **II. eranskinean** adierazi zen modura, laguntza justifikatzeko informazio hori biltzea ezinbestekoa zen.

Atal honetan **parte hartu duten pertsona ezberdinen profila jaso nahi dugu,** ez asistentzia (4.1.) (4.2.) (4.3.) (4.4.). Hau da, pertsona berdina 3 saiotan egon bada, behin bakarrik jasoko dugu berari dagokion informazioa. Prozesuan zehar parte hartzea bilatzen zen profil batek parte hartu ez balu, hemen adieraztea garrantzitsua da.

Gure prozesuan gazteek parte-hartzeko ahaleginak egin baditugu ere 16-34 bitarteko herritarren parte-hartzea oso baxua izan da. Bestalde, rolari dagokionez, gehienek herritar moduan hartu dute parte, baina elkarteei deialdia luzatu zaienez horiek ere egon dira.



4.1. Parte-hartzaile kopurua, adin tartea eta sexuaren arabera

	Emakumeak	Gizonak	Ez bitarra	Guztira
Parte har dezaketen pertsonak	0	0	0	0
Parte-hartzaile kopuru totala	0	0	0	0
Adin tarteka multzokatuak				
• 16 urtez azpikoak	0	0	0	0
• 16-34 urte	0	0		
• 35-49 urte	0	0		
• 50-64 urte	0	0		
• 65-74 urte	0	0		
• 75-84 urte	0	0		
• 84 urtetik gorakoak	0	0		

4.2. Partaideen kopurua, sexu eta parte hartze prozesuan izan duen rolaren arabera

	Emakumeak	Gizonak	Ez bitarra	Guztira
Herritarrak	0	0	0	
Elkarte bateko ordezkaria	0	0	0	
Arduradun politikoa	0	0	0	
Udal langilea	0	0	0	
Beste erakunde publiko bateko ordezkaria	0	0	0	
Enpresa bateko ordezkaria	0	0	0	
Bestelakoak	0	0	0	

4.3. Herritarren profil konkretu bat faltan somatu al duzue? *

Ez

Bai. Honakoa(k):

Pertsona migratuak

4.4. Bestelako oharrik partaideen inguruan?

PARTE-HARTZAILEAK

PARTAIDE KOPURUA

PARTAIDEEN ROLA

BIDEOA IKUSI

05 PROZESUAREN BIDERATZAILEEN PROFILA

Prozesu aurrera eramateko, batzuetan, **bidelaguntza jasotzen da**, askotan aholkularitzak kontratatzen dira prozesua diseinatu edota aurrera eramateko.

Zehaztu zein den zure kasua (5.1.) (5.2.).



https://egoitzadesa.sare.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DMSEskaerakWEB/iberdok/verPlantillaIberdok?idIberdok=77050&dtip=4002&indice=0&ordt=0&docSel=1&titulo=2.%201.%201.%20Agiri%20orokorrak

5.1. Bideratzaileen profila

	Emakumeak	Gizonezkoak	Ez bitarra	Guztira
Enpresa/aholkularitza bateko langilea/kidea	0	0	0	0
Elkarte bateko langilea	0	0	0	0
Elkarte bateko kidea	0	0	0	0
Udal langilea	0	0	0	0
Ordezkari politikoa	0	0	0	0
Beste bat: Zein	0	0	0	0

5.2. Bestelako oharrik bideratzaileen inguruan?

← Aurrekoa Hurrengoa →

Prozesuaren ebaluazioa (6.1.) (6.2.) (6.3.) ezinbestekoa da kalitatea bermatu eta inpaktua neurtu ahal izateko.

Gure prozesua herritarrek ebaluatu dute saioetan bete duten galdetegi erraz baten bidez, bertan euren generoa zehaztu dutenez informazio ere badugu ebaluazioa aberasteko.


6. Prozesu/proiektuaren ebaluazioa

6.1. Garatutako prozesuaren ebaluaketa egin da? *

- ○ Ez
- ◉ Bai

6.2. Nork egin du ebaluazioa? *

- ☑ Herritarrek
- ☐ Udalak
- ☐ Teknikariek
- ☐ Dinamizatzaileek
- ☐ Besterik:

6.3. Ebaluazioaren datuak sexuaren arabera banatuta jaso dira *

- ○ Ez
- ◉ Bai

Prozesu berriak ebaluatu nahi badituzu, gure webgunean baliabideen atalean topatuko duzun **“Partaidetza prozesuak ebaluatzeko gida”** lagungarria izan dakizuke.





Azken balorazio honek **sustatzaileak prozesuaren inguruan duen ikuspuntua** jasoko du (7.1.) (7.2.) (7.3.). Udalean prozesuaren ardura izan duenak edo bidelaguntza eskaini duenak bete dezake.



7. Prozesuaren/proiektuaren balorazioa sustatzailearen arabera

7.1. Hasieran aipatutako helburuen betetze maila (0, inolaz ere - 10, guztiz) *

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 ED/EE

7.2. Esan zein neurritan zauden ados ondorengo baieztapenekin (0, erabat desados - 10, oso ados) *

- **Informazioaren kalitatea:** prozesuak kalitatezko informazioa partekatzea ahalbidetu du, behar adina denbora eta tresna eskaini zaio.

  0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 ED/EE

- **Eztabaidarako sortutako espazio eta denborak:** hitz egiteko, kontrasteak egiteko eta modu eraikitzailean aritzeko aukera egon da.

  0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 ED/EE

- **Aniztasuna:** prozesuan herritar ezberdinek parte hartzeko aukera egon da, ahots eta ikuspegi ezberdinak entzuteko aukera egon da.

  0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 ED/EE

- **Inklusioa:** prozesuak normalean parte hartzeko zailtasunak dituzten pertsonek berdintasunean parte hartzekoa aukera eskaini du.

  0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 ED/EE

Formularioa **GORDE**, eskatutako beste dokumentazioa erantsi eta eskaera tramitatzeko moduan izango zara.



Internet bidezko eskaera

Herritarren partaidetza sustatzeko lurraldeko udalei eta tokiko erakunde txikiei dirulaguntzak

Herritarren Partaidetza

Laguntzari buruzko zalantzak Enrike Bergua 934999999

Eskatzailea: Izena Abizena Abizena

Espedientea: 2025-000035-04-02-B

IFZ: P2007400A

Sortze data: 2025-10-31

1 Nork egiten du eskaera

2 Zure eskaera osatzeko dokumentazioa

3 Aztertzea eta Aldundira bidaltzea

Eskaerara itzuli

Agiri bakoitzaren gehienezko tamaina 50 MB-koa da

Konprimatutako agiriak ez dira onartzen


2. 1. 1. Agiri orokorrak - Derrigorrezkoak
1. Zuriketarako eranskina - A epigrafea
Zuriketa bideratzeko eta Datu-basea elikatzeko datuak jasoko dira formulario honetan
505216.pdf
(2025-10-31)
Ezabatu
Agiria aldatu
2. 2. ordainketa eskaera
Alkateak elektronikoki sinatu behar du ordainketa eskaera
Arakatu
Erantsi
Oharrak
Gehienez 250 karaktere. 250 karaktere erabilgarri.
Onartutako motak: PDF
3. Fakturak
Arakatu
Erantsi
Oharrak
Gehienez 250 karaktere. 250 karaktere erabilgarri.
Onartutako motak: PDF
4. Ordainagiriak
Arakatu
Erantsi
Oharrak
Gehienez 250 karaktere. 250 karaktere erabilgarri.
Onartutako motak: PDF
5. Memoria ekonomikoa
Arakatu
Erantsi
Oharrak
Gehienez 250 karaktere. 250 karaktere erabilgarri.
Onartutako motak: PDF


EGOITZA ELEKTRONIKOA
LAGUNTZAKBEKAKDIRULAGUNTZAK
2025/10/31 09:31:23 | Online laguntza eu | es
P2007400A
Internet bidezko eskaera
Herritarren partaidetza sustatzeko lurraldeko udalei eta tokiko erakunde txikiei dirulaguntzak
Herritarren Partaidetza
Laguntzari buruzko zalantzak
Enrike Bergua
934999999
Eskatzailea: Izena Abizena Abizena
Espedientea: 2025-000035-04-02-B
IFZ: P2007400A
Sortze data: 2025-10-31
1 Nork egiten du eskaera
2 Zure eskaera osatzeko dokumentazioa
3 Aztertzea eta Aldundira bidaltzea
Eskaerara itzuli
2. 1. Agiri orokorrak
Agiri mota
Ekintzak
2. 1. 1 Derrigorrezko agiriak (beharrezko agiriak)
Agiriak falta dira
Aldatu
2. 1. 3 Bestelako agiriak edo agiri elkarreragileak (eskaera osatzen dutenak edo Foru Aldundiak egiaztatzearen aurka dagoelako eskatzaileak aurkeztu behar dituenak)
Ez dago agiririk
Gehitu

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

BIDEOA IKUSI

INFORMAZIO GEHIAGO:

https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/partaidetza/

partaidetza@gipuzkoa.eus

943 11 39 60